

azpeitianzer?

udal aldizkaria 161. zenbakia
Denon artean



aurrekontuak
2014



eman zure
iritzia!



aurrekontuak 2014



plan estrategikoa

Aurrekontuak osatzeko prozesuak Udala izango du abiapuntu eta helmuga. Ogasuneko batzordean sakontasun handiz landuko da aurrekontuen gaia. Batzorde horretan, Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztien iritziak jasota egingo da 2014ko aurrekontuaren lehen zirriborroa, eta jarraian beste batzordeetara zabalduko da. Udaleko batzorde bakoitzean, dagokion ataleko egitasmoa eta aurreikuspen ekonomikoak eztabaidatuko dituzte Udal ordezkariak.

Udaleko batzordeetan aurrekontuak osatzeko garatuko den prozesuan, Denon Artean-en bidez, herritarrengandik jasotako ekarpenak integratuko dira. Horretarako, Udal ordezkari guztiek jasoko dute herritarren iritzien gaineko informazioa. Eta aurreko urtean egin bezala, Udal langileen iritziak biltzeko saioak ere egingo dira.

Bestelako iturriak ere kontutan hartuko dira aurrekontuak osatzekoan. Udalak egin berri duen Plan Estrategikoa esaterako, aurrekontuekin lotu eta bereziki landuko da. Eta gainera, Foru Aldundiak martxan jarrita dituen parte hartzeko prozesuetan (aurrekontuak, garraioa) bildutako ekarpenak ere erabiliko dira.

Aurrekontuak Udalbatzan onartuko dira, lehen asmoaren arabera 2014ko urtarrilean. Baina, eztabaidaren sakontasunak eraginda, prozesuaren iraupena luzatu daitekeenez, ez dago oraindik data zehatzik aurrekontuak onartzeko egingo den Udalbatzarako.



alderdien ekarpenak

denon artean

udal komisioak

udalbatza

herriarrekin (diputazioa)





"azpeitiko erronka nagusiak argi daude; ekonomiaren sustapena eta gizarte beharrei erantzutea"

Aurrekontuak egiteko unea iritsi den honetan, zein da Azpeitiko Udalaren egoera ekonomikoa?

Manuel Unanue: Ekonomiari dagokionez momentu konplikatuak bizi ditugu. Eta horrek, nola ez, Udaleko diru kontuetan eragin zuzena du. Udaleko diru sarrerak nabarmen gutxitu dira, 2010arekin alderatuta adibidez, 2 milioi gutxiago. Eta 2007an baino 5 milioi euro gutxiago ditu Udalak urtean zehar gastatzeko. Horrek, Udalaren kudeaketa asko konplikatu du.

Iñaki Portilla: Egoeraz jabetuta, lehenengo urtetik hartu genituen neurriak, baliabide ekonomikoaren optimizazio plana eginez. Erabaki gogorrek hartu behar izan ditugu: Udaltzaingoa eta Euskara Patronatoaren

berregituratzea, ordu extrak ia erabat kentzea, azpikontratazioak bermegoizatzeko, gastuak gutxitzea, talde politiko eta ordezkariak batzordeetan parte-hartzeagatik jasotzen dituzten ordainsariak gutxitzea... Baina hasieratik argi genuen zerbitzu publikoak mantendu eta ahal zen neurrian indartu egin behar genituela. Eta orain atzera begiratu erabaki zuzenak hartu genituela uste dugu.

Manuel Unanue: Udal zorra ere gutxitzen joan gara denbora honetan. Foru Aldundiarekin 2009 urtean utzitako zorra kitatu dugu. Eta beraz, egoera ekonomiko saneatua duela esan dezakegu.

Legegintzaldiko bi urteetan maiatzaren onartu dituzue aurrekontuak, zergatik

orain aurreratu duzue prozesua?

Manuel Unanue: Udalaren diru sarrera nagusia Diputazioak ematen duen fondo forala da. Aurreko legegintzaldian Diputazioak aurrikuspen okerra egin zuen, Udalarik zegoena baino diru gehiago emanez. Eta kalkulua oker horiek zor bilakatu dira Aldundiarekin, gure legegintzaldian ere ordaindu ditugunak. Egoera hau ez errepikatuko, guk zuzentzeko jokatu nahi izan dugu. Diputazioak zenbat etorriko den jakin arte eta Udalaren urtearen itxiera jakin arte, alegia zehatz mehatz zenbat diru dugun jakindakoan ekin genion aurrekontuak egiteko prozesuari. Hori izan da maiatzaren aurrekontuak onartzeko arrazoia. Zuzentzeko jokatu dugu baina uste dugu ondo jokatu dugula bi urtetan aurrekontu orekatu batzuk izan baititugu, inongo desfaserik

gabe. Bestelako zerbait aipatu garaitan akats larria litzateke.

Aritz Epelde: Aurrekontuak maiatzaren onartzeak badu ordea bere alde negatiboa. Aurrekontuak exekutatzeko denbora gutxi geratzen dela. Ikusita gainera azken bi urteetan Aldundiak aurrikuspen nahiko zehatzak egin dituela eta Udalak bere gainontzeko sarreraren aurrikuspenean ere ondo ibili garela, aurrekontuak 2014ko urte hasieran onartzea erabaki dugu. Bi urtetako esperientzia eta orain arte sarreraren inguruko aurrikuspenetan asmatu dugula ikusita, urrats hori emateko baldintzetan gaudela uste dugu. Hori bai, zuzentzeko jokatu.

Aurrekontuak osatzeko parte hartze prozesua egingo duzue aurtengoan ere? Zer nolako balorazioa egingo duzu Denon Artean prozesuaz?

Eneko etxeberria: Hasieratik esan genuen gardentasunez jokatzeko gurea, baita herriko taldeekin elkarlanean aritzeko borondatea gurea ere. Denon Artean prozesua oso emankorra izan da. Herriaren parte-hartzeak eta hainbat arlotako eragileek egindako ekarpenek asko aberastu dituzte Udalaren egitasmoak. Herriaren askok parte hartu dute eskaini zaizkien guneetan eta Udala herriari irekitzeko beharra bazegoela frogatu du horrek.

Ainhoa Beristain: Udalak herriaren zerbitzura egon behar du, garai berrietara egokitu, beti ere ardurak eta erabaki guneak non diren argi jakinda. Eta horregatik, Udalaren 2014ko ildo nagusiak aurkeztu ditugu, baita diru kontuak ere, eta gero urtean zehar adostutako proiektuak gauzatu eta herriaren eskaerei erantzuten aritu gara.

"Gardentasunez jokatzeko eta taldeekin elkarlanean aritzeko borondatea azaldu dugu hasieratik"

Herriaren egindako eskaerei dagokionez, zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Mikel Ibarzabal: Herriaren egunerokoa eragiten duten detaile txikiei garrantzia handia ematen zaiela konturatu gara. Oinezkoentzako gune irristakorak, hautsitako eserlekuak edota errepideko zuloak adibidez. Horregatik, hirigintzako mantenu lanetan esfortzu berezia egin dugu.

Leire Etxaniz: Baina herriaren kezka nagusia egoera ekonomikoari lotuta dator zalantzarik gabe. Egoera zaila bizi du gure herriak, eta horregatik hori da Udal ordezkarien kezkarik handiena ere. Esfortzu eta denbora asko inbertitu dugu horretan, Plan Estrategikoa egiten, Sustapen Plana martxan ipintzen, langileekin, eragile ekonomiko eta beste instituzioekin harremanetan... Etorkizunerako oinarri berriak jartzen ari gara. Baina egoera hau gainditzeko ez da nahikoa izango Udaletik egin dezakeguna, goi mailako instituzioen inplikazioa ere beharko da.

Egoera honetan, gaizki pasatzen ari diren herriak gero eta gehiago dira. Eta Udalarik horiei laguntzea dagokio. Horregatik, ekonomiaren sustapenean ez ezik, gizarte beharrek detektatu eta laguntzeko hainbat neurri ere hartu ditugu. Horretarako, Gizarte Zerbitzuetako inbertsioak handituz joan gara.

Aritz Epelde: Parte hartzeko guneetan jasotakoaren arabera, ekonomia eta gizarte beharren atzetik, hirigintza eta ingurumena ikusten dituzte herriaren lehentasunezko gaien artean.

Nola egikarrituko da 2014ko aurrekontuak osatzeko prozesua?

Aritz Epelde: Denon Artean esperientzia ikasketak prozesua ere izaten ari da. Aurreko urteko esperientziaren berrikuspen kritikoa eginez, hobekuntzak egiten ari gara. Eta aurtengo prozesuak hasierako funts berari eutsiko badio ere, aldaketak egin ditugu.

Ainhoa Beristain: Orain arteko bi prozesuetan ikuspegi sektorialarekin egin ditugu batzarrak. Beste modu batera esanda, bakoitza bere arlo eta auzoko problema konkretura mugatu da. Horrek baditu bere alde onak, baina uste dugu norbere eremutik begiratu izango bada ere, ikuspegi zabaltzea komeni dela. Arlo bereko taldeen artean elkarlanean oihitza handia dago, baina beste arloetakoekin aritzea gehiago kostatzen da. Eta uste dugu hor badagoela potentzialitatea, landu beharrekoa. Azpeitiko herriaren erronka nagusiak argiak dira, ekonomiaren sustapena eta gizarte beharrei erantzutea. Eta horretan, eremu askotatik eragin daiteke. Udala eta arlo desberdinetako taldeak proiektu komunetan elkarlanean arituta pauso handiagoak eman ditzakegu.

Eneko Etxeberria: Asmo horri jarraituz, batzar nagusi bat egingo dugu Denon Artean prozesuari hasiera emateko. Bertan, 2014ko proiekturik nagusienak aurkeztuko ditugu. Bigarren herri kontseilu bat ere egingo dugu hondakinen kudeaketari lotua. Ondoren egingo diren batzar sektorialetan eremuko gaiez aritzeaz gain, galdera zehatzak jarriko ditugu mahai gainean, zer egin dezakegu eremu honetatik ekonomian eragin eta gizarte beharrei erantzuteko?

2014 urteko ildo nagusiak aurkeztuko ditu udalak

Azaroak 26an batzarra egingo da Sanagustin kulturunean

2014 urteko aurrekontuak osatzera doa Azpeitiko Udalak eta aurrekontu horietan, ildo nagusien inguruko planteamenduak egiten ari dira. Horretarako, eta herritarrei aurkezteko, lehenbiziko bilera antolatu da azaroaren 26an Sanagustin kulturunean.

Ekonomia sustatzeko neurriak, gizarte beharrei erantzutea, hirigintza, ingurumena, oinezkotzea edota azoka plazaren eraberritzea herriaren etorkizunerako gai garrantzitsuak dira. Horregatik, Azpeitiko Udalak herritar guztiak batzarrean parte hartzera gonbidatu nahi ditu.



udalak elkarlanean jarraitzen du talde eta eragileekin lanean

Mahaiak gune garrantzitsuak dira herriko talde eta eragileen beharrei erantzuteko. Horrela uste du Azpeitiko Udalak eta horregatik, aurrekontuak osatzeko orduan ere garrantzia izango dute. Arlo bakoitzeko proiektuak landuko dira bileretan, gardentasun osoz.

Modu honetan, batzar guztietan galdera bat planteatuko du Udalak;

“Ekonomia sustatzeko eta behar sozialei erantzuteko, zer egin daiteke eremu bakoitzean?”

Arlo hauetako bilerak egingo dira:



ekarpenak erraz eta eroso egiteko, buzoiak



Udalak herritarren ekarpenak jasotzen jarraitu nahi du eta horretarako, tresna berriak jarriko ditu azpeitiarren eskura. Horien artean, irudian bezalako buzoiak. Herriko auzoetan ezarriko diren gutunontziek ekarpenak erraztasunez eta erosotasunez egitea dute helburutzat.



auzoetako herritarren ekarpenak jasotzen jarraituko du udalak



Auzoek garrantzi berezia dute Udalarentzat. Herriaren erdigunetik urruti daude eta horregatik, funtzionamendu propioa dute. Askotan, urruti egoteak Udalarekin harreman galtzea ekartzen du.

Udalak auzoekin lotura indartzen jarraitzeko eta auzoetako herritarren beharrei egokitasunez erantzuteko hainbat tresna jarri ditu.



Herrigunetik kanpo dauden auzoekiko distantziak moztu nahian, auzo batzordeak osatu dira. Era berean, auzo alkateak ezarri dira auzo bakoitzean Udala eta auzoen arteko zubi lanak egiteko.

Eguneroko funtzionamenduari dagokionean, auzoko batzarrean eta batzordean eztabaidatu eta lantzen dira gaiak, auzotarren iritzia bildu eta erabaki adostuak hartzen saiatuz.



herritarren ekarpenak inoiz baino baliotsuagoak dira

Bizi dugun krisi garaian, Udalaren eraginkortasuna biderkatzea oso garrantzitsua da. Eta Udalak argi du hori herritarrekin elkarlanean arituz gero bakarrik lortuko duela. Izan ere, horren adierazle dira azken bi urteetan Udala eta herritarren arteko elkarlanak izan dituen emaitza oparoak. Azpeitiko guneko, arlo eta guneko askotan lan egin da eta pauso garrantzitsuak ematea lortu da.

Horregatik, Udaletik herritarrek ekarpenak egitera animatu nahi ditugu hasi dugun **Denon Artean 2014** prozesuan, aurrerantzean ere fruituak jasotzen jarrai dezagun.



azpeitia



denon artean

eman zure iritzia!



Internet bidez proposamenak egiteko aukera ere eskaintzen da, horrela, www.azpeitia.net webgunean Denon Artean atal berezian zure ekarpenak egiteko txokoa aurki dezakezu.